

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **IDATZIZ** erantzuteko hurrengo **GALDERA** egiten dio **Patxi Lopez lehendakariari**, “maiatzaren 27ko osoko bilkuran, eta krisi ekonomikoak eragindako defizitari aurre egiteko, 8/2010 Lege dekretuak gurea eragingo dituen neurriei buruz iragarritakoaz”

ZIOA

Joan zen maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran eta krisi ekonomikoak eragindako defizitari aurre egiteko Espainiako gobernuak onartutako 8/2010 Lege dekretuak gurean eragingo dituen ondorioak eta dekretu horretan jasotako neurrien aplikazioa azaltzeko Patxi Lopez lehendakariak agerraldia egin zuen. Han esandako hainbat gauza zehazte aldera, idatziz erantzuteko hurrengo galderak egiten dizkio:

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA

- 1- Eusko Jaurlaritzaren soldata-masa %5 aurreztea aurreikusi du Jaurlaritzak. Horretarako, besteak beste, azkeneko 12 hilabetetan bete ez diren 138 plaza amortizatuko direla adierazi du zuen lehendakariak. Zeintzuk dira 138 plaza horiek? Zenbat aurreztea aurreikusten da erabaki horrekin?
- 2- Zereginen metatzeagatik %8 gutxiago kontratatuko du gobernuak; ze lanpostutan aurreikusten da neurri hori aplikatzea? Ze zereginetan? Zenbat diru aurreztuko du gobernuak erabaki horrekin?
- 3- Ordezkapen kontratazioa %8 gutxituko dela iragarri du: ze ordezkapen ez dira beteko? Zenbat diru aurreztuko du gobernuak erabaki horrekin?
- 4- Lana huts egitea %1 gutxitzea aurreikusten da. Zenbatekoa da lana huts egitea gaur egun sail bakoitzean? Ze departamendutan aurreikusten da hori gauzatzea? Ze neurri hartuko da horretarako?
- 5- Gainontzeko sektore publikoan ere beharrezko neurriak hartzea aurreikusi du soldata ahalegin bera egin dezaten hango langileek ere; nola aurreikusten du murrizketa hori egitea? Sindikatuekin inolako elkarrizketarik izaten ari da gobernuak neurri hori aurrera eraman ahal izateko?

- 6- 2011kako aurrekontuen 2 eta 4 kapituluetan %3ko murrizketa egitea aurreikusten da, sail bakoitzean, beti ere 2010eko aurrekontua oinarri hartuta. Era berean, kontzertuaren batzorde mistoak hartuko dituen neurriak kontuan hartu gabe, gobernuak 30 milioi euro aurrezteko konpromisoa hartu du aipatutako kapitulu horietan, 2010ean zehar. Nola aurreikusten du 30 milioi horiek aurreztea? Zehaztu zertan aurreztuko den eta nora bideratuko diren 30 milioi horiek, defizita murriztera ala beste nonbaitera?
- 7- Administrazioak dituen egoitza premien inguruan azterketa egiten ari dela iragarri du, era horretan administrazioak erabiltzen dituen egoitzen arrazionalizazioa gauzatzeko. Noizko izango du txosten hori?
- 8- Aurrekoarekin lotuta, administrazioei eta talde politiko guztiei “lurralde bakoitzaren hornikuntza aldarrikapenen, eraikin enblematikoen, zerbitzuen inguruko hausnarketa lasai eta sakona” egitea beharrezkotzat jo du lehendakariak. Zeri buruz ari da zehazki lehendakaria? Zehaztu ze eraikini buruz ari den eta ze asmorekin proposatu duen neurria.
- 9- Sektore publikoko produktibitatearen batzordea sortzea aurreikusten du, arlo politikoaren aukera aztertu eta egiturazko soluzioak proposatzeko. Zeinek osatutako batzordea izango litzateke? Zehaztu bere egitekoa zein izango den eta noizko jarriko den martxan.
- 10- Prestazio berrien akreditazioak sistema ezartzea aurreikusten da osasun zerbitzu sistematan. Nork emango ditu akreditazio horiek? Zertarako balioko dute?
- 11- Errezetak ordaintzea ezarriko dela eta, ze diru-sarreratik gorakoek ordaindu beharko dute medizinen errezetaren parte bat?
- 12- Industria sailak, bere departamentuko enpresa publikoen gastu arrunta %20an murriztuko duela iragarri du lehendakariak. Nola eta non murriztuko da %20 hori?
- 13- Jaurlaritzak umeko ematen dituen diru-laguntzak gastu fiskal legez ematea aztertzen ari da. Kontuan izanik, jada egon badirela PFGZn era horretako kenketak, zertaz ari da Jaurlaritza? Zehaztu.

Gasteizen, 2010eko ekainaren 7an

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea**